


**Mikel Gómez Uranga**

Abagune berriaren aurrean

# Subiranotasunerako eginkizun, diskurtso eta balioak



Abagune berriaren aurrean

## **Mikel Gómez Uranga**

### **Subiranotasunerako eginkizun, diskurtso eta balioen aldaketa**

#### **EDUKIAK**

**3 AURKEZPENA** *Xabier Anza*

**5 EGINKIZUN, DISKURTSO ETA BALIOEN ALDAKETA** *Mikel Gómez Uranga*

5 1. Hitzaurrea

8 2. Aldaketaren legitimitatea eta esparruaren berrikuspena

10 3. Balizko hitzarmenaren edukiak

12 4. Prozedurak eta elkarrekiko talde-balio partekatuak

15 5. Zer proiektu bateratu behar du euskal gizarteak?

**2** 19 6. Hitzarmen berria adosteko zailtasunak

19 a) Estatu-nazioaren nazionalismoa

20 b) Neoliberalismo oromenperatzailea

21 c) Gaur egungo Europar Batasuna ez da ongi uztartzen euskal autogobernuarekin

**25 BIBLIOGRAFIA**

**26 OHARRAK**

Barrainkua 13, 6. ● 48009 BILBO  
☎ 94 - 4037799  
Faxa: 94 - 4037766  
fundazioa@elasind.org



**4. Dokumentua  
2001.eko Uztaila**

# Aurkezpena

**Xabier Anza**

Mikel Gómez Uranga, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna, Manu Robles-Arangiz Institutuaren ohiko lankideetako da. "Soberanía económica y globalización en Euskal Herria" liburuaren prestaketa zuzendu zuen eta "Euskal Herria, un nuevo escenario. Democracia, cohesión social y cultura" izenburukoaren zuzendaritzan ere parte hartu zuen. Era berean, ELAren hitzaldi eta mintegi askotan ere esku hartu du.

Honako azterlanaren egilearen hurbiltasun hori ez da ausazkoa. Urte hauetan zehar, Gómez Urangak euskal sindikalismoarentzako eta beste indar aurrerakoi batzuentzako erreferentziak jotzen dugun pentsaera garatu du arlo ekonomiko eta politikoan. Pentsaera zehatza eta konprometitua, aldi berean kritikoa eta proposamen egilea dena. Beraren diskurtsoa, gure iritziz, ikasketa arloa gainditu eta izaera gizatiar, aurrerakoi eta militante sakoneko aukerak islatzen dituzten hiru ardatzen inguruan antolatzen da.

Horietako lehenengoa gizartearen eta jarduera ekonomikoaren itxuraketan alderdi komunitarioak eta balioek izan behar duten lehentasuna da. Balioaldarrikapen hori ez da soilik etikoa, ezaugarri hori berezkoa duen arren. Egilea buruz buru jartzen zaio pentsaera neoliberalaren oinarrizko dogmetakoa den bati, sarritan aitortu ohi ez dena, alegia, desberdintasun ekonomikoak eta lotura kolektiboen hausturak emaitza ekonomiko hobeak sortzen dituztela. Horregatik, identitate nazional berria gehiengoarentzako onuragarriak diren balioen inguruan -aberastasuna banatzeko justizia, elkartasuna, parte-hartzea...- taxutzeko oinarrizko akordioa eratu beharra azpimarratzen du.

Bigarrenik, oinarrizko akordio hori nola lortu behar den zehazten saiatzen da idazlea. Adostasun errazeko estrategia bat bilatu beharrean, eta gizarte guztietan (eta euskal gizartean bereziki) talde sozialek dituzten interes kontrajarrien jakitun, XIX. mendeko burgesia liberalak izan zuenaren moduko

aurrerakuntza-rola, XXI. mendean, zer sektorek hartu ahal izango duten euren gain adierazten du. Aipatu burgesia horrek, eta botere politikoek, "patriotismo dosiarekin batera barneratu dituzte berekoikeria liberalaren maximak". Horrek "borroka iraunkorra eta tregoarik gabekoa" ekarri behar du; "borroka kolektiboa, zentzuduna, onestua, baketsua eta -arinkeria badirudi ere- ahalik eta umoretsuena izan behar du (...) Eta borroka prozesu horrek aurrerapen balioen inguruan antolaturiko erakunde eta proiektuak (kultural, sozial, sindikal eta politikoak) eratzea behar du".

Eta, azkenik, aurreko bi ardatzak kokatzen direneko markoa zehazten du: herrirako prozesu-proposamena. Idazleak, klase aukera eta aukera abertzalearen arteko eztabaida zaharrari ihes egin orde, prozesu politiko gisa aurkezten du. Beraren iritziz, autogobernuaren hobekuntzak lehen aipatutako sektore aurrerakoien indar korrelazioaren hobekuntzaren emaitza izan daitezke. Horregatik, autodeterminazioa edota autogobernu maila handiagoak eskatzearen helburua, identitate berezi eta ezberdina baieztatzea baino, aberastasuna banatzeko justizia maila handiagoak lortzeko izan liteke. Horrela eginez gero, arazo politikoa euskal herritarren adierazpen politikoan kokatuko litzateke soilik, hau da, herritar diren aldetik hartzen dituzten erabakietan eta talde politikoek, prozedura demokratikoen bidez, egiten dituzten proposamenetan. "Argi dago, justizia sozial handiagoa lortzea ez da soilik gure komunitatearen erronka, baina gure erantzukizun kolektiboa geure komunitatean oinarritzen da batez ere, eta horixe izango da hobekuntza orokorrari egingo diogun ekarpena".

Har ditzagun honako lerro hauek Manu Robles-Arangiz Institutuarentzako beren-beregi egindako eta zinez eskertzen dugun lan honen sarreratzat.

*Bilbon, 2001eko ekainaren 28a*

# Subiranotasunerako eginkizun diskurtso eta balioen aldaketa

**Mikel Gómez Uranga**  
EHU-UPVko katedraduna

*"Ados ez egoteko eskubidea aldarrikatzen dutenek eztabaidatzeko erantzukizuna berenganatu beharko lukete.*

*Kritikatzeko eskubidea aldarrikatzen dutenek ulertzeko erantzukizuna berenganatu beharko lukete.*

*Besteengan eragina izateko eskubidea aldarrikatzen dutenek inoren burua ez berotzeko erantzukizuna berenganatu beharko lukete,*

*eta parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dutenek besteak konbentzitzeko erantzukizuna berenganatu beharko lukete".\**

**(James Hunter)**

## **1. Hitzaurrea**

Denbora-segida jakin batean pieza guztiak elkarrekin mihiztatu behar diren **puzzlearen** tankera dauka Euskal Herriaren proiektu politikoak. **Pieza ugari** ditu puzzle horrek, eta hona hemen horietarik **batzuk**: autogobernuaren segurtasun juridikoaren aldarrikapena, esparru edo markoaren balizko berrikuspena, Euskal Herria naziotzat erabat aintzatestea sektore aurrerakoiek, aldaketa politiko eta sozialaren aldeko zein aurkako subjektuen zehaztapena, proiektu eta erakunde bakoitzaren indarra, aldaketa gauzatzeko behar diren adostasun eta atxikimendu sozialen erdiespena... Pieza horiek guztiak aldi berean elkarri uztartzen saiatzea eginkizun aspergarria gerta liteke, baita mingotsa ere, ezinezkoa baita. Eta ez dirudi zentzuzkoa egiten ari garen eraikinaren azken solairuetako obrak geldiarazteak aldameneko lursailen desjabetzea artean egin gabe omen dagoelako.

\* "Before the shooting begins" liburuan, . 239. orrialdean. Etzioniren liburutik hartutako aipamena.

Mundu osoko politologoek definitutako estaturik gabeko **nazio kontzeptuarekin** goitik behera dator bat euskal nazioa. Gizartearen **sektore aurrerakoi guztiek onartu beharko lukete egitate hori;** alabaina, euskal abertzaleek bakarrik onesten dute. Kontzeptuak berak dioenez, estaturik gabeko nazioek estatua behar dute nazio gisa garatzeko, estatu hori zer ote den zehazki ez jakin arren. Jakin badakite ezin dela XIX. mendeko estatua izan, ezin dela isolaturik egon, ez duela armada propiorik, monetarik... edukiko. Badakite, hitz gutxitan

esanda,  
subiranotasuna  
partekatua izaten  
dela beti.  
Horregatik  
–diskurtsoen  
eremura helduak  
gara–,  
**gezurretan ari  
zaizkio beren  
herriari Estatu**



**espainiarraren goresleak** zera diotenean, Euskal Herriaren subiranotasun nahia proiektu zaharkitua, XIX. mendekoa, dela. Ez daukate, beraz, batere sinesgarritasunik Euskal Herriko gehiengo sozialaren aurrean.

Euskal gehiengo sozialaren oinarrizko eskarietakoa da autogobernuaren **segurtasun juridikoaren bermearena.** Areagotu egin da, gainera, eskariaren indarra azkenaldi honetan. Ez dago zertan horregatik harriturik. Alor askotan –gehiegitan– nabarmentzen da gure gaur egungo esparru juridikoaren bermerik eza: kontzertu ekonomikoan, Estatuaren eskumenak hankaz gora jartzen dituzten oinarri-legeetan, aurreikusitako eskuduntzen arinkeriako ukazioan, autogobernuaren edukien interpretazioa beti gure kalterako

egin behar horretan (Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa, adibidez), auzitegi Konstituzionalaren jokabide inkisitorialean... **Gernikako Estatutua akiturik dago janik (eskumenik) ezagatik:** Estatuaren erakundeek ito egin dute beren hitz-jario zeken, alde bateko eta iruzurtiaz. Jaio ere herrenka jaio zen estatutua, gerora praxi politikoak sakondu duen lurralde-sakabanaketa berretsiz. Inor ez luke harritu behar, beraz, esparru horrek Euskal Autonomia Erkidegoko gehiengo sozialaren asmoak **ez asebetetzeak.**

Baina hel diezaiozun (une batez bederen) **hipotesi hoberenari,** hau da, jo dezagun estatuak esku hartzen duen alor guztien inguruko erabateko arautze-ahalmena ("zuzenbide-

subiranotasuna") eskuratu dugula. Hala eta guztiz ere, balegoke hortik gorako arau-esparrurik (arau inplizitu zein esplizituak), eremu global edo nazioartekotik datozenak.

**Bide horretan ez dago erabateko autonomiarik** (ezta gurea baino lurralde askoz handiagoetan ere) produkzio eta kontsumo-arauak finkatzeko, kultur nortasunak sendotzeko edo kudeaketa zein esku-hartze publikorako arteztarua ezartzeko. Batzuetan Europar Batasunetik etorriko dira arauak, eta beste batzuetan "sareetatik sartuko zaizkigu", pandemia bateko birusak bailiran. Honenbestez, **subiranotasun-proiektu ezberdina hausnartu behar dugu XXI. menderako,** bide egokitik jo ezean bazterrera utzi baikaitzake Historiak.

**Proiektu demokratikoak** bultzatu behar ditugu, gizartearen gehiengoak bere egin behar dituen proiektuak. Gizartea prest egongo litzateke berea duela uste duen zerbait partekatzeko, baldin eta zerbait hori zuzena, bidezkoa, dela uste badu eta, gainera, ongizatearen hobekuntzarik badakar. Herrigintza, gure ustez, justizia, elkartasuna, zintzotasuna, konfiantza... balio horietan oinarritu behar da. Asmo hori (esan beharrik ere ez dago) ez da gure gizartearen muga barruetan ez hasten ez amaitzen. Baina gure erantzukizun kolektiboa gure gizarteari dagokio batik bat, eta hori hobetuz lortuko dugu gainerakoak ere hobetzea.

Beraz, sakoneko aldaketa politiko eta sozialarekin bat etorriko liratekeen subjektu, interes eta asmoak identifikatu, zehaztatu, beharra dago, baita aldaketa hori ahalbidetzen edo eragozten duten ekimenak ere.

XIX. mendean, **burgesia liberalak bultzatu** zuen aurrerapen ekonomikoa eta merkatuen garapena, estatu-nazioak sortuz. XX: mendean, berriz, langileen eta beste sektore batzuen (emakumeak, ekologismoa...) borrokak nagusitu ziren. **Gaur egun, ordea, ez dago esaterik burgesia liberala aurrerabidearen aldekoa denik.** Beste nonbait hasi beharko dugu jende aurrerakoiaren bila. Botere ekonomiko eta politikoez (maila guztietakoek: Europako erakundeek, Estatuak, Autonomia Erkidegoak, Diputazioak...) guztiz berenganatua dute berekoikeria liberalaren doktrina, bakoitzari dagokion abertzaletasun (edo aberrikeria) portzentajearekin. Pobreaki gerra ezartzen diote, eta aberatsaren aurrean belaunikatu egiten dira.

Talde horien ahalmenak, hala eta guztiz ere, mugatu egiten dira **gizarteak, taldeak, jendeak eta herriak sendotu**, borrokari ekin eta aurrerabide-balioen inguruan **antolatu** ahala. Balio hauen eta haien arteko kontraesanak etengabeko borroka bortitza dakar. Borroka horrek ahalik eta kolektiboena, burutsuena, zintzoena, baketsuena eta –ergelkeria diogula dirudien arren– alaitsuena izan behar du.

**Erakunde eta proiektu sendoak** (kultura, gizarte, sindikalgintza, politika... alorretakoak) eskatzen ditu borroka-prozesu horrek. Eta heltzeko, ontzeko, denbora behar dute erakunde eta proiektuek. Erakunde, elkarte, talde, mugimendu eta sektore politiko horietan dago gaur egun aurrerabidearen muina.

Horregatik, ia derrigorrezkoa zaigu **elkarrizketaren** aldeko aldarrikapena egitea hitzurre honetan, idazki honen buruan dagoen James Hunterren hitzak gureganatuz. Elkarrizketa sakona –ez elite politikoen artekoa–, gure gizartearen, gure herriaren, bihotzeraino helduko dena.

Egia baldin bada aurrerabidearen muina erakunde eta proiektu-sare horietan dagoela gaur egun, adostasunak (handiagoak ala txikiagoak, baina aldaketaren aldekoak betiere) eragingo dituzten estrategiak egituratu behar dira, bere geroaren jabe izango den gizartea eratzeko, elkartasun eta justizia balioetan oinarritutako gizartea. Hortaz, bateraezinak dira autogobernu-maila zabalago edo handiagoetara jotzeko ahaleginak eta indarkeria armatua. Hainbat botere-talderi mesedegarri izan lekiok indarkeria, baina euskal gizarteari dagokionez edonolako barne-adostasun zapuzteko gai da.

Talde horien ahalmenak, hala eta guztiz ere, mugatu egiten dira **gizarteak, taldeak, jendeak eta herriak sendotu**, borrokari ekin eta aurrerabide-balioen inguruan **antolatu** ahala

Topikoa iruditu arren, alde guztiei azaldu behar zaie **proiektu politikoak botoek onesten edo legitimatzen dituztela**. Ez du esan nahi horrek botoen babesik ez duten proiektuak bazterrera utzi behar direnik. Noizbait utopia izanak dira gaur egun ongi errotutako hainbat ideia. Baina botoen babesik gabe proiektu politikoren bat ezartzeak –bidezkoa ez izateaz gain– sistema sozio-politikoaren funtzionamendu okerra eragiten du, baita giza baliabide ugari (banako zein taldekakoak) alferrik galtzea ere. Euskal Herriari erabakitzeke ahalmena eragozte ezarpena da. Beren konstituzioa ezarri nahi diotenek eragozten diote Euskal Herriari erabakimena, baina baita beren lurraldetasun-proiektuak boto demokratikotan gauzatu nahi ez dituztenek ere.

## **2. Aldaketaren legitimitatea eta esparruaren berrikuspena**

Prozedura demokratiko bidezkoetan oinarritzea dute helburu gizarte zibilizatuek. Mendebaldeko demokrazia liberalek etengabe oxigenodun odola ponpatzen duen bihotzari esker funtzionatzen dute. **Subiranotasuna herrian (herritarrengan) uzten duen arau-sistema legal eta zuzena, horixe da sistema politikoaren barne-erraia**. Aldiro erabiltzen dute herritarrek subiranotasuna, libreki, beren ordezkariak demokratikoaren bitartez. Herriak (herritarrek) sistema horretan elkarbizitzeko borondatea adierazten duenean (sistemaren euskarriak bidezkoak eta beren premiei egokituak direla uste duelako), orduan oxigenatzen da sistema.

**Gizartearen barruan interes, asmo eta ideologia ezberdinak -elkarri kontrajarriak**

ere batzuetan– elkarren parean egotean eta jardutean, orduan hasten dira arazoak. Arazo honek ez du konponbide hobezinik, ezta onik ere. Baina jendeak elkarrekin bizi behar du derrigor. Demokrazia ordezkatzailer sistemek oinarritzko balio politikoaren inguruko gutxieneko adostasunik bermatu behar lukete. Nola, ordea, gizartearen barruan ideologia hain ezberdinak egonik? Ideologia batek –erlijio batek bezalaxe– ongia zer den jakin eta horretaz jabetzeko bide bakarra eskaintzen du sarritan. Gainerako ideologiak bazterrera uzteko joera du, beraz. Aldez aurretik zehaztutako erantzunak –bartzertzaileak– eta konponbideak eskaintzen dizkie gizartearen antolamendu eta funtzionamendu arazoei. Zenbait leku eta garaitan ideologia bartzertzaileak nagusitu (eta nagusitzen) izan dira.

**Ideologia elkartzaileei** eskainiko diegu guk arreta. Hasteko, esan dezagun naturaltasunez talde ideologiko bakoitzak bere utopia propioaren alde egiten duela lan. Gaur egungo filosofia politikoaren alorrean oso ezaguna den pentsalari batek (Rawls) dioenez edozein gizartetan dauden ideologia horiek "doktrina ulertarazleak" dira: horietako bakoitzak bere mundu-ikuskerara eskusiboa eskaintzen du. Diferentziak diferentzi, Rawlsek dio gizartean bizirik irauteko eta nolabaiteko egonkortasuna eskuratzeko modu bakarra zera dela, talde ideologikoen arteko adostasuna lortzea (adostasun gurutzatua). Oinarritzko justizia printzipioak behar ditu euskarri adostasun horrek, eta gizarte osoari hedatu behar zaizkio. Taldeek, jakina, ez dute zertan bere ideologia bazterrera utzi beharrik. Baina **antolakuntza demokratiko eta legitimazio printzipio arrazoizko batzuk onartu behar dituzte**. Azken batean, herritarren borondateak legitimatutako elkarbizitzarako



oinarriak onartu behar dituzte. Beste hitz batzuekin esanda: edozein sistema politiko konstituzionalen oinarriek gehiengoaren onespena behar dute.

Badira gure herrian legitimazio demokratikoaren oinarriak herritarren gehiengoaren borondatean bilatu eta onartu beharko dituzten talde eta familia ideologikoak, beren ideologiari uko egin gabe betiere. Legitimazio demokratikoaren bila badabilta ezin zaio horri kontrajarri derrigortasun izaera duen inongo lege-sistema edo konstituziorik, formalki sistema demokratikoa izan arren ez bailuke herritarren onespenez edukiko.

Beste modu batera esanda: Euskal Herriaren zati batek demokratikoki adierazten badu (ongi zehazturik aldezturik aurretik zehaztu beharreko zera guztiak) dagokion sistema konstituzionalaren oinarriko esparrua gainditu, aldatu edo berriro negoziatu nahi duela, ezin zaio ukatu asmo horren gauzatzea. **Baldintza bakar legoke jartzerik** (Rawlsek dioen lege): esparru konstituzionala gainditu nahi duen euskal herriaren zati horrek zorrotz errespetatzea eta aintzat hartzea herritarren berdintasun, askatasun politiko eta zibil eskubideak, aukera berdintasuna, berdintasuna ekonomiari dagokionez eta herritarren elkarrenganako begirunea.

Printzipio horiek onartzen ez dituzten taldeak edo ideologiak bakarrik utzi ditzake gizarteak adostasun orokorretik kanpo.




Hortik aurrera, herritarren erabakimenari buruzko konstituzioaren inongo aginduk ez du legitimotasun demokratikorik, talde nazionalista espainiarrek etengabe esaten badute ere egungo konstituzioa dela legitimotasun demokratiko iturri bakarra. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan espainiar konstituzioaren beren interpretazioa

ezarri jardun nahi duten taldeek izango dute, agian, horretarako eskubiderik, baina ez, aitzitik, legitimotasun demokratiko handirik.

Jakina, egungo konstituzioaren lege-sistema indarrean den legediari dagokio. Ez da zalantzan jartzen zuzen bidezko estatua indarrean dagoenik. **Zalantzan dagoena zera da, ba ote duen esparru konstituzional horrek behar hainbateko legitimotasunik euskal herritarrontzat,** edo legitimotasun berbera ote duen espainiar estatua osatzen duten herrialde guztietan.

Azaldu ditugun arrazoibide hauen aurka honako zera hau esan ohi da sarritan: euskal herriaren zati bat espainiar herriarekin bat eginik dagoela aspaldiko mendeetatik eta, horrenbestez, gaur egun ez dagoela bi herri berezitez hitz egiterik. Ezin uka badela lotura sendorik euskal eta espainiar herrien artean, baina, aldi berean, **onartu eta aintzatetsi beharra dago Euskal Herriaren** (oro har) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (bereziki) **nortasun espezifiko eta berezitua**. Hizkuntzak, ohiturek, historiak



eta, oro har, kulturak berezitasun propioa eman diote euskal herriari, inguruko berezitasunekin alderagarri ez dena. Baina ez ginen horretaz ari. **Euskal herritarren adierazpide politikoaren eremura eraman behar da auzia**, herritar gisa har ditzaketen erabakien alorrera, eta talde politikoek (prozedura demokratiko homologagarrien bitartez) proposatzen dutenera.

### **3. Balizko hitzarmenaren edukiak**

Honako ideia hau dugu abiapuntu orrialde hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) herritarren gehiengo demokratikoak onartutako **oinarrizko adostasunak** (baldin eta horrelakorik inoiz izan bada) berrikusi egin behar direla, eginiko hauteskundeen emaitzen arabera.<sup>1</sup>

Hitzarmen "bermatzailea" adostu beharko litzateke, euskal herritarren erabakia **aintzat hartuko** dela ziurtatuko duten oinarrizko legeak izango litzukeena. Ez gara aldiari aldiko kontzesioez ari, estatuaren kudeatzaileek egoera politikoaren edo beste gorabehera batzuen arabera emango lizkiguketzen eskuduntzez. Legitimazioaren zimenduetatik abiatuz bakarrik eraberritu

daiteke etxea, hau da, euskal herriaren zati horrek hartutako erabakiak aintzakotzat hartuz.

Paradoxikoa da beren buruak Frantziako Iraultzaren bilobatzat eta Kontratu Sozialaren aldekotzat dituzten zenbaitek hain barneratua edukitzea Espainia Handiaren nazionalismoa eta **alde batera uztea** une honetan, herri honetan, **kontratu**

#### **edo hitzarmen politiko baten balizko oinarrien inguruko hausnarketa.**

Konstituzioz kanpoko uretan bainatzea debekatuta dagoela diote etengabe, uda partean hondartzetan jartzen den megafonia bailiran. Orrialde hauen xedea ez da, inondik ere, espainiar konstituzioa aztertzea, ezta Autonomia Estatutua ere<sup>2</sup>, **gerora egin beharreko hainbat proposamen argitzearren** zenbait hausnarketa egitea baizik. Alor sozio-ekonomikoari dagozkion hainbat eskumen jorratuko ditugu adibide eta hausnarbide gisara.

**Estatu nazionalen zereginak nabarmen aldatu dira Europako Diru Batasuneko partaide direnetik.** Diru eta truke politiken eskuduntzak galdu izanak alor "makroenen" kudeatzaile huts bihurtu ditu estatuak. Beste eskuduntza batzuk eratorriak (edo, gutxienik, partekatuak) dira, eta subiranotasun ia guztia alor jakin batzuetara mugatzen da (lan eta ongizate soziala, ordena publikoa, kultura, eguneroko bizimodua eta abar), justu estatuei legitimotasun handiena dakarkienetara. Herrialde aberatsenek ondasunak banatzeko/partekatzeko batere asmorik ez

1. Azterketa eta eztabaidarako gai oso interesgarria litzatekeen arren, lan honetatik kanpo geratzen da botoen interpretazioa, orrialdeotan lantzen ari garen ikuspegitik begiratuta, baita taldeen arteko bitartekaritza eta benetako jarduera politikoa.

2. Lan honen apaltasuna gainditu egingo luke horrek; gainera, eginkizun horrek espezializazio tekniko handia eskatzen du.

dutenez (herrialde horietako klase ertainetako kideek ez baitute beren kontsumo-maila eta gainerako abantailak murrizterik nahi), estatu-nazioa da oraindik ere banatze-prozesu ekonomiko eta sozialak garatzeko gune nagusia. **Estatuaren bitartez bakarrik egin daitezke zerga-sistemen, gizarte segurantzen eta beste birbanatze-politika batzuen fluxu eta transferentziak.**

Halako ongizate maila batzuk bermatu beharra dauzka estatu-nazioak, bere tresna egonkorren bitartez (propioak, berdingabeak "transferiezinak") elkartasunari ekinez. Espainiar Estatua Europako Erkidegoaren partaide egin izanak eta, bereziki, Maastrichteko Ituna indarrean egoteak goitik behera ari da aldarazten estatuaren subiranotasuna. **Konstituzioa subiranotasun eremu handiak ari da galtzen.** Espainiako Konstituzioak estatuari soilik esleitzen dizkion 32 eskuduntzetatik:

- 10 estatuaren baitakoak dira, oso-osorik eta erabateko autonomiaz. Horien artean dira alor sozio-ekonomikoari dagozkionak (lan-legedia, baita Gizarte Segurantzaren oinarritzko legedia eta ekonomi erregimena ere).
- 12 eskuduntza Europako Erkidegoaren politika edo erabaki orokorragoei uztarturik daude.
- 5 eskumen Europako Batasunaren erabakien menpe daude.
- eta 5 eskumen Europako arteztarauen gauzatze edo kudeatze hutsa baino ez dira.

Gaur egungo egoera geostrategikoan, **Estatuaren eta Hego Euskal Herriaren arteko ekonomi subiranotasun esparruak banatzearen inguruko auzi nagusia**

**gizarte segurantza eta lan-gizarte alorretan dago.** Bere nortasuna sendotzeko behar ditu eskumen horiek Euskadik, baita bere politika propioa finkatzeko ere ondasun eta zerbitzuen birbanatzeari dagokionez. "Eskumen sorta" horretan dago euskal nortasunaren alor sozio-ekonomikoa finkatzeko gakoa. Beraz, orriotan planteatzen duguna ez da gizarteko zenbait sektore aurrerakoien (sindikatu eta bestelako) aldarrikapen soilak: "Euskal Proiektu Nazionala" eratzeko aukeraz ari gara.

Estatu espainiarraren subiranotasun-galerak (moneta nazionala, pezeta, desagertzean joko du gailur sinbolikoa murrizketa horrek) **estrategia berriak erabiltzera behartzen du.** Horregatik, halako une jakin batetik aurrera erabat gelditu da Estatutik EAerako eskuduntzen transferentzia. Gelditze-estrategia horrek (nolabait ere planifikatua, inoiz argiro adierazi ez bada ere) aldarazi egin du Konstituzio-Estatutu arteko esparrua. Beste era batera esango dugu: beren burua konstituzionalizatzen jotzen dutenak gai hauek aldarrikatzen dituztenean heldu da erabateko eskuduntza-lehortea. Espainiako Konstituzioa onartu zenean inork ez zuen aurreikusten epe ertainera Estatu espainiarrak horren subiranotasun-galera handia izango zuenik: diru edo moneta politika, aduanak... eta beste zenbait alor.

Zabala da oso eskumenen inguruko kasuistika. Eta kontua ez da, bakarrik, eskumenak edukitzea ala ez edukitzea. Zortzi kasu edo eskumen-egoera bereiziko genituzke:

- 1<sup>a</sup> Kudeaketa
- 2<sup>a</sup> Fluxu-kontrolak gabeko kudeaketa: euskal Ogasun edo Kutxek dirurik biltzen ez dutenekoak. Gizarte

Estatu espainiarraren subiranotasun-galerak (moneta nazionala, pezeta, desagertzean joko du gailur sinbolikoa murrizketa horrek) **estrategia berriak erabiltzera behartzen du**

Segurantzaren erregimenari dagokiona, adibidez.

- 3<sup>a</sup> Diru-bilketa dakarren kudeaketa. Gizarte Segurantzari Kontzertu-erregimena ezarriko balitzaio, adibidez.
- 4<sup>a</sup> Arautze-ahalmenik gabeko kudeaketa: hainbat zergaren ingurukoa, adibidez.
- 5<sup>a</sup> Arautze-ahalmena duen kudeaketa: zerga batzuei dagokienez gaur egun indarrean dagoena.
- 6<sup>a</sup> Arautze-ahalmena, baina goragoko erakundeen menpe dagoena. Telekomunikazioen alorrean, besteak beste.
- 7<sup>a</sup> Arautze-ahalmena, baina koordinatua. Europako Erkidegoaren arteztarauen ondoriozko ingurumenari buruzko zenbait lege, adibidez.
- 8<sup>a</sup> Arautze-ahalmen eskusiboa. Estatuaren lan-gizarte alorreko legeak, adibidez.

Lerro nagusiok berriro negoziatuko lituzkeen balizko hitzarmenak malgutasun hori erabili egin beharko luke: kontuan izan betiere badirela hainbat eskumen Europako Erkidegoaren menpekoak edo harekin koordinatuak, trantsizio-epetik egon litekeela, eta beste hainbat gai ere negoziatzerik balegokeela.

Hainbat **trantsizio-mota** egon litezke:

- Behin-behingoan behe mailako gisara eskuratzen diren eskumenak, gerora (hainbat epe eta baldintza direla medio) eskumen-maila handiagoetara joz. Gizarte Segurantza, adibidez, 2. mailatik 3.era pasa liteke, eta ondoren 5.era ino igo

- Lan harremanen lege-esparruari buruzko zenbait lege 7. mailatik 8.era edo 6.era pasa litezke, Europako Erkidegoan gertatzen denaren arabera.

Nolanahi dela ere (eta hala diogu orrialde hauetan) behar hainbateko bermea ziurtatu behar da negoziatutako esparru eta hitzarmenak kolokan jar ez ditzan Estatuaren alde bateko edozein legedia, epai edo ebazpenek.

#### **4. Prozedurak eta elkarrekiko talde-balio partekatuak**

**Demokrazia ordezkatzailerik gabe ez dago demokraziarik.** Elkarren oso antzeko elementuen bidez bereganatzen dituzte herrialde guztiek demokrazia politikoaren ardatzak. Euskal Herrian garatzen den edozein proiektu ere onartu beharra dauka printzipio hori, ez baitago legitimatzeko beste biderik, ez behintzat gure ingurune geopolitiko hauetan. Proiektu politiko izena merezi duen zerarik nekez gauzatuko da, ez bada jarduera demokratikoaren gutxieneko arauetan oinarritzen.

Nahi adina akats aurkitu ahal izango zaizkio horri ere: sistemaren benetako gauzatzea dela, abiapuntutzat hartu den hitzarmen politikoaren oinarriak zalantzarriak direla (ia inon ez baitago benetako aukeraberdintasunik)..., makina bat defizit eta hutsune aipatu ahal izango dira, garrantzitsuak denak... Baina ezin dugu zakarretara bota demokrazia ordezkatzailerik dakarkigun zera hori: **proiektu guztiek, derrigor, botoen onespena behar dute.**

Abiapuntu beretik omen dauden bidegabekeriak, akatsak eta hutsuneak aitzakiatzat jarririk hautestontzien homologazioari uko egiten dioten proiektuek porrotik biribilena izango dute



ordaina, eta herritarrek ez dituzte ulertuko. Eta globalizazioaren enbatar nahiz estatu-nazioaren haserrealdiei aurre egin nahi dieten **herri txikiak** erabateko **ahuleziara kondenaturik daude baldin eta prozedura demokratikoaren lehenbiziko eta derrigorrezko legitimazio horri uko egiten badiote.**

Dena den, demokrazia ordezkatzailleaz orain artean esandakoak ez digu ezer argitzen beste honako honetaz: nola hobetzen dira gizarteak, zein **balio** erabili eta sustatu behar dira gizarte demokratikoak sendotzeko?

Inondik ere ez dituzte ametitzen libertario indibidualistek galdera horiek; izan ere, demokraziaren barrutitik haratago jotzen baitute galdekizun horiek. Libertario indibidualisten iritziz herritarren (banaka hartutako herritarren) botoak balio du, ez beste ezerk. Herritarrak hobetsitako aukera aski da bere askatasuna bermatzeko. Eguneroko bizimoduan, ordea, jarrera

malguagoak ageri dituzte libertario indibidualistek, eta enpresa pribatuan zein negozioetan ohikoak diren neurri hertsatzaile eta erabilgarri ez diete uko egiten. Ordena soziala norbanakoen eskubideen arabera osatzen da. Eta gizarte guztiek talde-balioak berenganatzen dituzten arren, liberalen iritziz justizia norbanakoaren eskubideei dago loturik.

Ikuspegi komunitarioak, aldiz, gizartea hartzen du aintzat, jendartean sustraitutako gizalegea; gizarteko kideen eskubideak baino gehiago haien betekizunak eta betebeharrak izaten ditu kontuan, eta **jaramon handiagoa egiten die balio etikoei ekonomi edo ordena-politikei baino.** Talde-aberastasun handiko gizarteetan konpromiso sendoa egoten da taldekideek onartzen dituzten balioekiko<sup>3</sup>.

Balioak partekatzeak zera dakar: bortxabaliabiderik erabili gabe ordena soziala onartzea herritarrek<sup>4</sup>. Badago, jakina, barne-liskarrik, klase-borrokarik gizarte horretan ere; ez dira desagertu botere-asimetriak... Baina talde-ikuspegiari esker ondu, "aberastu" egiten da gizartea, eta haren kideek hainbat betekizun bereganatu egiten dituzte; ondorioz, erantzukizun eta gogobetetasun handiagok ekiten diote lanari, aurrerabidearen aldeko ekinari. Bizitzeko moduko gizartea baino zerbait gehiago lortzea litzateke helburua: partaide dituen guztien ardura eta interes bizia sustatzen dituen gizartea. Hori lortzeko, ordea, **erakunde bitartekariak behar dira,**

3. Komunitarioek diote balio partekatuen muina dela pentsamendu sozialaren ardatza (Etzioni, 131. orrialdea)

4. Balio-baieztapenak badu eraginik jokaeran; borondatezko obedientziak adierazten du portaera-arauak (beteko direla espero denak, bai jardunbide pribatuan bai gizartearen ongizatearen zerbitzurako ekinean) aintzakotzat hartzen direla, sinetsi egiten dela horietan. Hauteskondeen inguruko azterketek diote, bestalde, herritarrak botoa ematera bultzatzen dituen arrazoi nagusia zera dela, gizabidezko eginkizuntzat jotzen dela. Horrekin batera, zenbait balio partekaturekiko konpromiso sendoak ere bultzatzen du jendea bozkatzera (Etzioni, 150. orrialdea).



**baita talde-sendotze edo aberaste sakona ere, gizarteak<sup>5</sup> hortxe gauza ditzan bere proiektuak.**

Hego Euskal Herriari dagokionez (baita, jakina, Espainiari ere) kezkatzekoa da baliorik eza bai programa bai praxi politikoan. Paradoxikoa da erabateko autogobernua lortzea helburu duten zenbait talde politiko batere ez arduratzea gizartean halako balio batzuk hedatzeaz, edo justu horren aurkako jokaera erabiltzea. **Nola jo bide subiranistetara ez bazaio garrantzi handiagoa ematen balizko balio partekatuen muinari?**

Euskal Herriko politikagintzak (programa politikoek eta jarduerak edo praxiak) askoz ere arreta handiagoa jarri beharko lioke gizarte-balioak bultzatzeari (konfiantza, leialtasuna, elkartasuna, eta abar). Hori egin ezean, bideraezinak gerta litezke bai subiranotasun handiagoa lortzeko ahaleginak bai Estatuan nolabaiteko bizikidetzak onartzeko aukera. Elkarrizketa, arrazoibidea, elkar konbentzitzen saiatzea, hezkuntza-kalitatearen hobekuntza..., horiek dira gizartearen gaitasunean sinesten duten taldeek bultzatzen dituzten helburuak. Aitzitik, **politizazioak eta jarduera sozialaren gehiegizko judizializazioak beste argudio batzuk (irudimen gutxiak, alajaina) ekartzen dituzte gogora: botereak eta legearen indarra, adibidez.** Sozial kontserbadoreak deritzenek demokrazia konstituzionalaren hesitura estuaren barruan egon nahi izaten dute beti, eta lege-zaparrada erabiltzen dute beren

interesak ezarri eta sistema politiko ia-ia teokratikoak eratzeko (Etzioni, 1999, 35).

Jakin badakigu **zaila dela nolabaiteko oreka lortzea herritarraren autonomiaren** (demokrazia ordezkatzaillearen ikuspegi liberalak etengabe aldarrikatzen du norbanakoaren askatasuna) **eta balio partekatuen inguruan errotutako gizartearen aurrerabidearen artean.** Baina hortxe dago, hain justu, gakoa. Gainera, ez legoke beste biderik gizarte aurrerakoiagoetarantz abiatzeko. Euskarri hobea du demokraziak funtsezko eta mamidun balioetan estatus instrumental hutsean baino.

Botereak ahuldu egiten dira talde sozial sendotuen, gero eta kementsu eta solidarioagoen presiopean. Baina **gizartearen eragina eta indarra nabarmen murriztuko lirateke** (legitimotasuna galduko bailuke) **norbanakoaren askatasunak errespetatuko ez balitu.** Aniztasuna du, eta izango du, ezaugarri euskal gizarteak. Orrialdeotan proposatzen duguna hauxe da: gero eta balio gehiago txertatzea balio partekatuen gizarte-muinean. Talde guztien iturrietatik edan behar du balio-komunitate horrek; **eta inondik ere ezin da bateratu jarrera hori talde ideologiko desberdinak, edo bestelako interesak dituztenak, ezabatzearekin** (bide baketsuak erabiliz bada ere)<sup>6</sup>.

Adibide bat: Espainiako Konstituzioarekiko ezinikusiak ez die uzten ikusten hainbat euskal abertzaleri Konstituzio horren atal bat –zenbait eskubideren babesa bermatzen

5. Autogobernu erakundeek eduki politikoagoa daukate, baina nekez egingo litzateke aurrera autogobernuaren bidean aldi berean ez bada asoziazionismoaren indarra sendotzen eta nortasun sozio-ekonomikoa finkatzen duten balioak hedatzen eta sakontzen ez badira.


6. Etzionik "leialtasun geruzatuen etengabeko hornikuntza" deitzen duenaren antzeko zerbait.

duena– aurrerapen garrantzitsua dela, edozein eredu subiranista alternatibok kontuan izan eta bereganatu beharko lukeen aurrerapena. Adibide berarekin jarraituz, hobe da aniztasunari eutsi eta sustatzea talde minoritarioen sakoneko konpromiso moralei aurre egiten saiatzea baino. Badira Euskadin ideia erlijioso sendoak dituzten sektoreak, beste batzuk ideia guztiz espainiarzaleak dituztenak...baina batzuek zein besteek eskubide osoa daukate beren hezkuntza eskaintza garatzeko. Onartzerik ez legokeena zera litzateke, talde horien ideiak ikastetxe publikoetan ezartzea, honako hau frogatuko ez balute behintzat (konbentzimenduaren bitartez, eta ez komunitatez kanpoko boterea erabiliz): sare publikoan ikasten duten neska-mutilentzat mesedegarriagoa izango litzatekeela ideia horien ezarpena, gizartean onespren handiagoa duten balioak sustatuko litzukeelako.

### **5. Zer proiektu bateratu behar du euskal gizarteak?**

**Arrazoibidezko indar-bektorea aurkitu behar dugu**, gure herriarentzako proiektu subiranista bultzatu eta horren euskarri izango dena. Kudeaketaren eta politikaren tresnak gizarteari hurbiltzea lagungarri izaten da emaitza hobeak lortzeko ahaleginean. Estatu espainiarraren menpe dauden hainbat eskuduntza –"Ongizatearen Estatua" deritzonaren ingurukoak– transferitzeak lagundu egingo luke, zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak eta errenta hobeto banatzen.

Alabaina, gerta liteke eskuduntzen gaia hobetzea talde guztiei komenigarri edo



premiazko ez iruditzea. Lehiakortasuna eta mozkinak eskuratzeko egoera hobetzea kezka ia bakartzat duten sektore eta talde sozialei, adibidez. Talde horien lehentasun eta kezken artean ez dago Ongizate Estatuaren inguruko alorretan (gizarte segurantzza, lan legedia eta politika eta bestelako politika sozialak) autogobernuak aurrera egitea. Izan ere, gai horietan aurrera egitea talde horien lehiakortasun-eraginkortasun helburuei kontrajar lekieke.

"Burgesia liberaleko" zenbait sektoreren ustez autogobernuan aurrera egitea kaltegarri gerta lekieke, soldata-kostuen murrizketa, finantzazio pribaturako baldintzak hobetzen dituzten aurrekontu publikoen doiketak edo enpresa-mozkin pribatuak areagotzen dituen privatizatze-prozesuak kolokan jarri bailitzake. Beraz, **gizarte-eredu zuzenagoa eta aurrerakoiagoaren aldeko talde sozialen indar-proporzio berriei loturik daude (eta horien ondorio dira) autogobernuaren hobekuntzak.**

**Proiektu nazionalik bateraturik dagoen gizarteetan errazagoa da ondasun eta zerbitzuen birbanatze helburuak gauzatzea.** Autodeterminazio aldarrikapenak berak ere helburu hori lortzea

izan lezake eragile nagusia. Elkarrekin bizitza-proiektuak partekatzeak elkarrekikotasuna, obligazio etikoa, konfiantza eta gizartearekiko zordun sentitzea ere dakartza berekin. Zenbat eta parte-hartzaileagoa izan demokrazia, zenbat eta talde zein elkarte-sare gehiago osatu (askotariko interesen aldekoak), zenbat eta aukera gehiago izan jendeak herrigintzan eta politikan parte hartzeko (lankidetzarako lekuak eta egiturak ugalduz)... orduan eta askeagoa eta berdintasun handiagoren jabe izango da gizartea.

**Arrazoibide, diskurtso berria "birsortu" behar da nortasun nazionalaren inguruan.**

Balioen ikuspegi etikotik abiatuta, erantzunkidetasunaren bitartez sar daiteke elkartasuna nazio-komunitateetan: "ni neu ere murgilduta nagoen tradizio horren erantzunkide naiz". Nazio-komunitatearen testuingurua da egokiena elkarrekikotasunean oinarritutako betekizunak finkatzeko herritarren artean. Eta testuinguru horixe litzateke, hain justu ere, egokiena justizia sozialaren halako ikuspegi bat bultzatu eta zabalduko luketen hainbat talde eta elkarte sozial sortzeko. Justizia ikuspegi horren bitartez gauzatuko litzateke herritarren elkartasuna.

Elkartasunaren oinarrietako gisara **Ongizate Estatuaren eginkizun birbanatzailea** eta kudeaketa burokratikoaren kontrol sozial zorrotzagoa bereganatuko dituen nortasun nazionala birsortu beharrean gaude. Ezinbestekoa da kontrol demokratikoa. Demokrazia politikoa ez da bideragarria baldin eta ez badago kalitatezko harreman sozialik, bai erakunde politikoak bai ekonomi eta enpresa erakundeak parametro parte-hartzaileagoetatik kontrolatuko dituztenak. Nortasun nazionala edukitzea da

etengabeko autodefinitze kolektibo prozesuan parte hartzea, batez ere eginkizun publikoetan adierazten den prozesua (erakunde politikoak, gobernu-politikak, eta abar. Miller, 1997, 210

Birbanatze-justizia handiagoaren ikuspegitik, sektore aurrerakoien **helburuak** honako hauek lirateke, besteak beste:

1. Enplegu gehiago sortzea
2. Laneko ezegonkortasun edo kolokatasuna ahalik eta gehien ezabatzea
3. Soldata eta gizarte-prestazio erregimenak duinago bihurtzea
4. Lan-harreman duinagoak ezartzea
5. Hobekuntza nabarmenak errenten birbanaketan
6. Zerga-justizia zorrotzagoa eta zerga-iruzurra ezabatzea
7. Ekipamendu kolektibo publikoetarako gastu handiagoa, eta berdintasun handiagoz.
8. Gastu sozialaren handitzea, eta diskriminazio positiboa gastu horretan





9. "Bizi-kalitate" adierazleen (konplexuak) bilakaeraren arabera politikak.
10. Lurralde-banaketa orekatua
11. Erabateko begirunea ingurugiroari
12. Ingurugiro-kostu historikoen (eta beste batzuen) esleipena.

"Nortasun berri" hori abiapuntu dugula, hauxe litzateke hurrengo eginkizuna: **emaitza objektibo horiek gizarteko talde gehienek partekatzea**, nahiz eta hasieran proiektu ezberdinak eduki. Horretarako zera behar da: ekonomia parte-hartzaileagoa, batetik, eta aipatu emaitzak gizartearen eta euskal ekonomi jardueraren zatirik ahalik eta handienera hedatzea, bestetik.

Egoera eta adibide askok adierazten digute gure herrian ez dagoela parte-hartze kultura handirik, elkartasuna gero eta urriagoa dela eta, are kezkarriagoa, **halako elite garaile batzuetan** oso txertatua dagoela, udal eta autonomia mailako botereekin lotura estuak dituztenak aspalditik. Alde handiak daude bi multzo hauen artean: batetik, beren burua oso lehiakortzat daukaten "enpresa bakan batzuen multzoa", administrazioak besteak baino hobeto tratatzen dituenak; bestetik, gainerako guztiak, gehienak, arazo gehiago edo gutxiagorekin dabilzanak.

Bestalde, euskal ekonomiaren jarduerak ez dira eraberritzen nagusiki enplegu-sorrera edo enplegu-maila duinagoak lortzeko premiaren arabera. Enpresa ustez "eraginkorrenetan" ere sumatzen da, bestalde, **parte-hartze arazo larririk**: horietara ez da heldu oraindik demokrazia parte-hartzailea. Eguneroko kontua da oraindik ere **gardentasun gabezia** eta langileen parte-hartzerik eza erabaki estrategikoetan. **Konfiantza mendetasun**

**bihurtzen da**; mendetasunak, berriz, **esplotazio handiagoa** dakar.

Kooperatiben sektorea ere parte-hartzearen bidetik abiatu zen (hala agintzen dute estatutuek) baina **teknokrazia jakin batzuen aginte eta kontrolpean**. Enpresa-alorreko parte-hartze demokratikorik eza askoz handiagoa da herrigintzari eta erabaki instituzional estrategikoei dagokienez. **Obskurantismoa**, itzal handiko erakundeen eta enpresari eraginkorrenen arteko **adiskidekeria**, hori izaten da ohikoena. Epe luzerako inbertsio publiko planak ezkutatu egiten zaizkio eztabaida publikoari eta gizarteko taldeen iritziari.

Estatuak dira, Europan, elkartasun-printzipioak gauzatzeko eremu nagusiak. Orrialdeotan diogu, ordea, **erakunde publikoen esparrua eta horri dagokion nazio-komunitatearena bat etortzea litzatekeela egokiena birbanaketa-justiziaren helburuak lortu ahal izateko**. Gureari dagokionez, EAE litzateke, lehenbizi, aipatu eremua, eta prozedura demokratikoen bidez hala erabakiko balitz, Hegoalde osoa ondoren. Ez da egia estatu-nazioak legitimotasun handiagoa duenik birbanatze-politika eraginkorragoak burutzeko. Estatu-lurralde berari ez dagozkio beti kultura, ekonomia eta gizarte eremu bakarra; ondorioz, Gizartean sustrai sendoenak dituzten erakundeek izaten dute bere inguruarekin harreman estuena. Eta –horretaz ez dago dudarik– askoz ere eraginkorragoak izan daitezke


Interes desberdinak dituzten zenbait sektorek halako **bat egite lerroak** osatu beharko lituzkete, betiere ikuspegi subiranistatik begiratuta. Nortasun-profil berri horrek birbanaketa-justizia eta hobekuntza ekonomiko zein sistemiko

bateratua elkarrekin lotu beharko lituzke. Nahitaez **partekatu behar dira helburu batzuk**, sistema ekonomikoaren jarduera egokia bermatuko dutenak: hobekuntzak hezkuntza-sisteman, herrialdearen prestakuntza-egituretan eta administrazioen kudeaketan; azpiegituren berrikuntza, gizartearen interesak eta ingurugiroarenak errespetatuz; ingurune berritzailearen hobekuntza; zergak biltzeko moduen hobekuntza; enpresen konpromiso estuagoa beren inguruarekin eta beren langileen interesekin, eta balio partekatzaileagoak berenganatzea enpresek. Sistema ekonomikoaren modernizazioak eta ondasunen banaketa zuzenak elkarrekin ibili behar dute, derrigor, euskal nazio-proiektuaren berrikuntzan. Berritzea, baina partekatuz; hori da kontua.

Ongizate Estatu deritzon horren zutabe nagusietakoa **Gizarte Segurantza** da, Estatuarekin auzian dabilkigun eskuduntzetako bat hain justu ere. Euskal Autonomia Erkidegoa ez dago gaur egun (oraingo datu demografikoen eta aurreikuspenen arabera, ezta per capita errenta kontuan hartuta ere) Estatu espainiarraren birbanaketa-egiturari kopuru aipagarririk helarazteko moduan. Gizarte Segurantza **Euskadiri ez transferitzeko omen dauden ustezko arrazoiek** (Kutxa Bakarraren haustura, diote) badute azpian bestelako interes eta zergatirik: biltzen diren diru-kopuru handi batzuen gainean daukaten erabakimena arriskuan ikusten dute hainbat burokrazia zentralek<sup>7</sup>.

Elkartasunari dagokionez, berriz, **barne eta kanpo-elkartasuna** bereizi beharko genituzke. Barne-elkartasunak ondasunen

birbanaketa-justizia hobea nazio-gizartea osatzen duten taldeen artean, hori behar du izan helburu. Kanpo-elkartasuna da, aldiz, euskal gizartetik kanpo dauden beste herri edo nazio batzuetara bideratzen dena. Elkartasunaz ari garenez, lehentasun-hurrenkerarik erabili behar da: lehenbizi Estatu espainiarreko gainerako herrialdeekin, segidan Europako Erkidegoarekin, eta hortik aurrera munduko gainerako herriekin (batez ere hainbat eta hainbat inmigranteren jatorriarekin, Afrikako herriekin alegia). Kanpo-elkartasunari dagokionez euskal nortasun-eredua ongi eratzeko gai bagara, normala litzateke EAEn eta Nafarroan jokabide eta interes aurrerakoiak dituzten taldeek hemen aipatu dugun nazio-nortasun eredua onartzea.



7. "Eszenatoki berri baterako proposamenak" liburuaren 293. orrialdean jorratzen da luze eta zabalago argudio hau.

## 6. Hitzarmen berria adosteko zailtasunak

### A) Estatu-nazioaren nazionalismoa

Behar diren baldintza guztiak eskura dauzka Estatu espainiarrak askotariko estatua izateko, baina ez du behin betikoz onartzen aniztasun hori. Estatu nazio, herri eta komunitateak elkarrekin **homogeneizatzen eta horien arteko berezitasunak ezabatzen** saiatzen dira espainiar eliteak. Eta horretan jarraituko dute gerora ere. Hori guztia, gainera, honako aitzakia erabiliz: aldarrikapen propio aipagarririk ez duten edota garapen ekonomikoari dagokionez eskualde aurreratuenetatik atzera samar geratu diren herrialde eta erregioekiko elkartasuna.

Hegoaldeko euskal lurraldeetan (Nafarroa barne) bizi diren talde guztien arteko nolabaiteko hitzarmena nola adostu, hori da gure buruhaustea. Euskal erabakimen-esparrua aldarrikapen guztiz legitimoa da; baina erabakitzeko benetako ahalmena, azken batean, estatuaren esku dago. Eta **estatu horrek beretzat nahi du** gai nagusi eta estrategikoen inguruko **erabakimen-monopolioa** ez ezik beste alor batzuetakoa ere: autonomia erkidegoek (Estatuaren esku-hartzerik gabe) beren kasa erabakitzeko ahalmena izango luketen alorretakoa alegia (hezkuntza, kultura, osasuna...).

**Estatuak**, beste edozein erakundek bezala, **luzaroan iraun nahi luke**. Gizakiok badugu epe luzera bizirauteko grina edo aiherra (Walzer, 1998, 39). Bestalde, demokrazia politikoa estatu-nazioari estu-estu lotutako kontzeptua dugu. Eta globalizazioak, berriz,

estatu-nazioen sendotzea dakar –beste baliabide batzuk erabiliz– Kudeatzaile politikoen eginkizun nagusietakoa Estatuaren iraupena eta jarraipena ziurtatzea da. Iraupen-jarraipen horrek (ez dezagun ahantzi) estatu-nazioaren barruan nazio-kohesioa indartzea eskatzen du. Estatuak iraun dezan behar-beharrezkoa da hainbat ohitura, ohikeria, irudikapen, erritu eta jarduerari eustea, horiek baitira estatu-nazionalismoa deritzogunaren muina eta euskarria. Nazionalismo hori ez da esplizituki adierazten, baina eguneroko erritua da, ohituraren poderioz herritar gehienek barneratu egiten dute eta oso ideologia eraginkorra bihurtzen da, inkontziente kolektibo oso sendoa eratzen baitu<sup>8</sup>.

Walzerrek "Erlijio zibila" deitzen duen horren antzekoa da fenomeno hori, hau da, Estatuak bere kideen buruetara helarazten dituen doktrina politiko, narrazio historiko, ospakizun erritu, pertsonaia eredugarri eta gainerako jardueren multzoa (1998, 88). **Zaila da estatu beraren barruan bi erlijio zibil edo gehiago onartzea**, batez ere estatu horrek Espainiakoaren aurrekari historikoak eta hurbiltasun errepublikar ez-anglosaxoia baldin baditu.

Nazionalismo espainiarrari probetxugarri zaio **eguneroko politika eta kudeaketa lana nazionalismo-kontzeptutik gaindi dagoela azaltzea edo itxura hori ematea**, kontzeptu horrekin zerikusirik ez duela irudikatzea. Baina, Billigek dioen legez, eguneroko politika ez dago desnazionalizatua, alderantziz baizik: eguneroko politika nazionala da batez ere. Komunikabideetan egunero ageri

8. H. Billig eskaintzen du Psikologia Sozialaren ikuspegirik berak "nazionalismo hutsala" deitzen duen horren bidez (egunerokotasunean eta ohikerian jauzitako nazionalismoa).



zaizkigun berrietan nazio-lurraldetasun kutsu nabarmen eta sakona igartzen da (Billig, 1998, 51-52).

**Ideologia nagusiak, liberalak, ez ditu onartzen gutxiengo nazionalak** edo kutsu etnikodun kolektiboak. Ideologia horretan herritarra da jarduera ororen ardatza eta egoera oso berezietan bakarrik onartzen ditu –gutxiengoek aldarrikapen politikorik egiten ez badute betiere– aiaptu taldeen eskariak.

Euskal auziari dagokionez, **Estatuarekin lehiabidean jar gaitzaketen gaiak bere legitimazio sozialerako behar ditu**, hain justu, **Estatuak**, esparru politiko legegile orokorraz gain. Gizarte segurantzari, ordena publikoari, hezkuntza sistemaren diseinuari, justiziarri eta lan harremanen inguruko legegintzari dagozkion gaiak dira.

Arazoari aurre egiteko bi modu leudeke: nazio-legitimitate arteko borroka gisara ekin gaiari, edo adostasun-bideak bilatzen hasi.

Gaur egun benetan gertatzen ari dena lehenbizi aipatu dugun aukera da, horrela dela aitortzen ez bada ere. Bigarren bidea litzateke aurrera egiteko era bakarra, baina –borondate demokratikoaren ordezkari aintzat harturik– bi nazio-kontzientzia ezberdin daudela onartzea leharre horrek. Baina Estatuaren babesletzat ageri diren taldeek edozein aldarrikapen sezesionistari dioten beldurrak itsutu egiten ditu erabat, eta hainbat kontraesan areagotuz gero intolerantziaren bidea hautatuko lukete, beren agintepeko gutxiengo nazionalen hizkuntza edo kultur bereizgarrien aurkako intolerantziari. Espainian ez da sekula garatu –ezta horretarako ahaleginik egin ere– diseinu konfederala, estatu berean elkartzen diren herrialdeen arteko intolerantziari mugarik jarriko liokeena hain zuzen (Walzer 929. Konstituzioaren teknika juridikoaren arabera ezinezkoa da gaur egun sistema hori ezartzea Estatu espainiarrean, Euskal Herrian konponbide partekatuak bilatzen hasteko formula egokia zatekeen arren.

### *B) Neoliberalismo oromenperatzailea*

**Botere ekonomikoek, enpresek, irabaziak nola lortu eta gehiagotu, hori da politika neoliberalen ardatza eta kezka. Bigarren mailakoak zaizkie politika horiei herritar gehienek arazoak eta interesak.** Hizkera bat, kontzeptu okerrak, "eraginkortasun tautologiak", sinplifikazioaren sinplifikazioz batere barne edukirik gabe geratu diren kontzeptuak..., hori guztia ezartzeko gaitasuna dauka botere neoliberalak. Hizkera minimalista horrek hutsal bihurtzen du bere logika adierabakarretik urruntzen den edozein argudio, logika horrek mespretxatu egiten baitu konplexutasuna, arrazoi edo zergati aniztasuna eta, horrenbestez, eztabaidaren premia.

**Adierazpen ideologikoak –bai politika alorrean bai ekonomian– elkarren eskutik dabilta.** "Demokrazia" "merkatuarekin" uztartzen da, eta "merkatua" "demokraziarekin"; hori dela eta hitz askoren esanahia okertu egiten da. Beraz, "sozialista" deitura ematen zaie, batere lotsarik gabe, kapitalismorik neoliberalenaren "alde" ari diren zenbait alderdi eta buruzagiri, "gobernu demokratiko" deitura inon diren gobernurik despotikoenei, baita jokabide genozidetan aritzen direnei ere; "hauteskunde libreak" aipatzen dira, hautagaien eskaintza batere legitimitaterik gabe boterea erabiltzen duten talde batzuek manipulatzeko badute ere... Komunikabideek hedatu, sendotu eta sustatu egiten dituzte gaur egun kontraesan linguistiko-kontzeptual horiek. Historian sekula izan duten baino gaitasun handiagoa dute egun hedabideek herritarren buruak zorabiarazteko eta otzantzeko, bai politikaren eremuan bai masa-konsumoaren, baita edozein eztabaida edo kritika ezabatzeko ere.

**C) Gaur egungo Europar Batasuna ez da ongi uztartzen euskal autogobernuarekin**

Diru Batasunaren prozesua ez da, inondik ere, Hego Euskal Herriko bi erkidegoek dauzkaten eskuduntza-esparruei eusteko edo horiek garatzeko lekurik egokiena. Europar Batasunaren **zerga-homogeneizazioak** –kapital-mugimenduen askatasunarekin bat dator hori– **izango du eraginik euskal eskuduntzetan**, eta sozietateen gaineko zergan, errentaren eta ondasunen transmisioen gainekoetan nabaritu da. EBren egonkortze-programan garrantzi handiagoa ematen zaio prezioen igoera geldiarazteari. Azkenaldi honetan, berriz,

zera nabari da, gero eta zerga bitarteko baliabide gutxiago eskuratzen dela (hauteskundeak eta zergak ez dira elkarren lagunak, nonbait), eta zenbait alorretara zabaldu dela zerga-presioaren murrizketa. Egitura-aldaketak gastu sozialaren inguruko programei dagozkienak dira: babes sozial sistemak, pentsio-sistemak... eta lan merkatua. Bestalde, estatuek epe luzerako interes-tasen kontrola galdu dutenetik gogortu egin (eta egingo) dira **soldaten aurkako neurriak eta lan-merkatuen liberalizazioen aldekoak**.

Europako Ekonomia eta Diru Batasunak aurrekontu-politikak gogortzeko eskatzen du, hau da, gastu publikoa murrizteko, batez ere kontsumo publikoari eta inbertsioari loturiko gastuak, baita enpresa publikoei ematen zaizkien laguntzena ere. Eskualdeek beren politika propioa egin ahal izateko eta autogobernu maila handiagoak eduki ditzaten, ordea, nahitaez behar dute eskualdeko gobernuak gastu publiko ahalmen handiagoa izatea, baita epe luzerako inbertsio-proiektuak egiteko gaitasuna ere, batez ere azpiegituretan. Kasu batean zein bestean, hemen aipatu ditugun jarduera neoliberalak galarazi egingo lukete gastuaren hazkundera. **Eskualdeen aurrekontua handitzeko zailtasunak edo ezintasunak moteldu edo gelditu egingo luke, partzialki bederen, autogobernuan sakontzeko prozesua.**

Sektore publikoek galdu egin dute EBn beren ekonomiak arautzeko ahalmena, justu eskualdeen autogobernu handiagoaren sendotzeak kontrakoa eskatzen duenean: hazkundera arautzeko gaitasuna eta merkatu berriak sortzea. Beste hitz batzuekin esanda, geroak ekar ditzakeen **eskari berriei erantzuteko gaitasuna eskualde edo**



**estaturik gabeko nazioetatik bertatik ematea ahalbidetu behar da**, baita jarduera ekonomikoaren dibertsifikazio handiagoak ekar litzakeen aukera berriei ere.

"Lehiakortasuna", hori da gaur egungo industri politikaren ardatza eta muina. **Inkiszioaren auzitegien modukoa da** sarritan politika hori, eragotzi egiten baititu hainbat mugimendu eta jarduera estrategiko, betiere lehiakortasunaren izenean, horrentzat kaltegarri liratekeelakoan. Sektore publikoei protagonismoa eta laguntzak ukatu egiten zaizkie, egoera, historia edota nazio-nortasunaren premiak kontuan hartu gabe. Oztopoak jartzen zaizkie, halaber, eskualdeei finantza-iturrietara jotzeko eta beren finantza-erakundeak kontrolatzeko, EBren Itunen arteztarauak erabiliz horretarako (Amsterdamgo Ituna).

Herrialde garatu gehienetan nabari den **pribatizazio uholdeak** ere eragin kaltegarriak ditu beren produkzio-egitura eta sareak eratu nahi dituzten eta produkzio-aparatuareen osatze prozesua nolabait kontrolatu nahi duten estatuz azpiko eskualdeetan.

Euskal ikuspegi aurrerakoi eta ezkerrekotik abiatuta –eta nazioarteko beste mugimendu politiko eta sozial batzuekin batera– Europako Erkidegoko politika eta jarduera liberalenak erabat aldarazteko ahaleginari ekin behar zaio. Erabateko enplegua, ondasunen banaketa eta erabakiak demokratikoki hartzea, horiek lirateke jarraitu beharreko bidearen helmugetako batzuk.

"Estatuen Batasunak" eragotzi egiten du herrien finkatze-prozesua. Berehalako helburu bat honakoa izan liteke: estaturik gabeko hainbat nazio (Eskozia, Flandes,

Alemaniaiko zenbait lander, katalunia, Hego Euskal Herriak eta abarrek) ordezkartzarik izatea EBko erakundeetan eurei dagozkien gaiak eztabaidatzen direnean. **Europako Erkidegoko erakundeetan parte-hartzeko premia** EAeko gehiengo sozialaren eta talde politikoen aldarrikapen bateratua beharko luke izan. Demokraziaren eta eraginkortasunaren aurkako ikuspegi estatalistak bakarrik jar lezake inor gizalegezko aldarrikapen horren aurka, hots, EBren eta estatuen arteko eginkizun banaketaren aurka. Diru-politikaren gai nagusietan izan ezik, gainerakoetan joera zera da (gero eta gehiago gainera): erantzukizun partekatuak.

Amsterdamgo Itunak berretsi egiten du eginkizun-banaketaren malgutasun hori, Itunean bertan ageri baita "ordezkapen" kontzeptua: EBko herrialdeek gauzatu ahal izango dituzte eskuduntzako Erkidegoak eskumen eskusiborik ez duen gai guztietan. **Estatu aberatsek ez dute politika sozialik, ez dute ondasunik banatzeko asmorik; ez dago Europa politikorik, ez dago herrien Europarik.**

Aldaketa garrantzitsuak izango dira EB hurrengo urteotan, eta Europar Erkidegoaren egungo status quoan berrikuntzak ekarriko ditu horrek. Eta bitarte horretan gertatzen denak eragin zuzena izango du euskal erkidegoen autogobernu-aukeretan. Hasi berria den eztabaida honetan etorkizuneko hiru proposamen nagusi ageri dira. Alemaniakoa da aipagarriena, eta Europako Batzordeari botere handiagoa ematea proposatzen du. Batzordea bihurtuko litzateke Europako Erkidegoko gobernu, eta egitura federalagoa garatuko luke (betiere estatu-nazioen arabera). **Zergen alorrean, berriz,**



**harmonizazio fiskal handiagoaren aldekoa da alemaniarren proposamena**, eta enpresen mozkinen, kapitalen eta energia-kontsumoaren gaineko zergetan homogeneotasun estuagoa nahi du Berlinek.

Alemaniarren proposamenak aurrez aurre ditu beste bi: frantsesa eta britainiarra. Bat datoz biak alemanek (alderdi sozialdemokratak) eginiko proposamena kritikatzeko, federalistegitza jotzen baitute. Estatu-nazioen subiranotasunarekiko begirune zabalagoa eskatzen dute frantses-britainiarrek. **Frantsesen proposamenak (jakobinismoaren ikuspegitik betiere) kutsu sozialagoa dauka, eta britainiarrena, berriz, merkatu librearen aldeko amorratua da** (Espainiako Gobernuak hauxe hobesten du). Bai ustezko federalismoaren bai zergen harmonizazioaren (energiaren gaineko zergei dagokienez, bereziki) aurka daude britainiarrak.

Euskal ikuspegitik begiratuta, eta gaia tentu handiz jorratuz betiere, **interesgarriagoa dirudi Alemaniaren proposamenak**, EBn ezar litezkeen zergen eta beste zera batzuen harmonizazioek ez baitaude zertan euskaldunok egoera okerragoan jarririk, ez behintzat Estatu espainiarrarekiko menpekotasun zorrotza baino okerragoan. Komenigarria litzateke, bestalde, frantsesen proposamenen alderdi sozialenak aurrera egitea.

**Gizarte-kohesio hoberrantz eta federalismo zabalagorantz urratsak egitea Europar Batasunak komeni zaio euskal subiranismoari.**

Estatu-nazioak EBn zenbat eta murgilduagoak egon orduan eta hobeak izango dira estaturik gabeko

nazioen eta erregioen aukerak, eta bestelako esparrutan jarduteko moduan izan daitezke. Baina ez gaitezen engaina: antzeko aldarrikapenak dituzten estaturik gabeko nazioek eta erregioek (Eskozia, Flandes, Katalunia... baita zenbait estatu txikik ere) ez badiote elkarlanari ekiten eta estatuei presiorik egiten ezinezkoa izango da estatu-nazioak oinarri ez dituen europar eraikuntzarik burutzea. Beraz, gure geroa (nolabait) Europar Batasunerako bidean gertatzen denaren esku dago.

Gauzak dauden bezala egonik, Kontzertu Ekonomikoaren inguruko negoziazioa dagokion erkidegoaren eta Estatuko Gobernuaren artean egin beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2001 urtean dago aurreikusita negoziazioa. Egungo egoeran (etengabeko helegite judizialak) ia ezinezkoa litzateke Kontzertua arazorik gabe berritzea. Ondorioz, eta

segurtasun juridiko egonkorra bermatzearren  
–ekonomiaren martxa onerako ere  
beharrezkoa da– komenigarria litzateke alor  
horretan Espainiako Konstituzioa gainditzea,  
edo behintzat justizia-auzitegiek  
Konstituzioaren testuaz egiten duten  
interpretazioa. **Paradoxarik ere gerta**

**liteke: Kontzertuaren aldeko zenbait  
sektorek, koherentziagatik, Konstituzioa  
aldatzearen alde azaldu behar izatea.  
Horixe baita zentzuzko ondorio bakarra:  
egungo esparru konstituzionala berriro  
negoziatu gabe ez dago gizalegezko  
konponbide demokratikorik.**



# Bibliografia

- BILLIG, MICHAEL El nacionalismo banal y la reproducción de la identidad nacional. Instituto de investigaciones sociales. Revista Mexicana de Sociología, nº1. 1998.
- ETZIONI, AMITAI La nueva regla de oro. Comunidad y moralidad en una sociedad democrática. Paidós Estado. Madrid. 1999.
- GARAGARELLA, ROBERT en Revista Claves. 1999
- GÓMEZ URANGA, MIKEL "Algunas reflexiones sobre la soberanía económica desde las perspectivas de las competencias y de la cultura", en Soberanía económica y globalización en Euskal Herria. Manu Robles-Arangiz Institutua. Bilbao. 1998.
- GÓMEZ URANGA, MIKEL "Un nuevo discurso para la soberanía económica" en VVAA Propuestas para un nuevo escenario. Manu Robles-Arangiz Institutua. Bilbao. 1999.
- KLEIN PHILIP, A "Power and economic performance: the institutionalist view", Journal of Economics Issues. Vol XXI. 3. 1987
- POLANYI, KARL La gran transformación, La Piqueta. Madrid. 1989.
- RAWLS, JOHN El liberalismo político. Ed. Grijalbo. Barcelona. 1996.
- THERBON, G. La ideología del poder y el poder de la ideología. Siglo XXI. Madrid. 1987.
- THURLOW, LESTER Generating inequality. Basic Books. New York.
- TOOL, MARC R "Instrumental value theory", en Hodgson Geoffrey, M. Samuels Warren J. & Tool Marc, R. (ed.) Institutional and evolutionary economics. EE. England. 1993.
- WALZER, MICHAEL Las esferas de la justicia. Fondo de Cultura Económica. Mexico 1993 (edición original de 1983).
- WALZER, MICHAEL Pluralisme et démocratie. Traducción al francés recopilada por editions Esprit. Paris. 1997.
- WALZER, MICHAEL Tratado sobre la tolerancia. Paidós. Estado y Sociedad. Madrid. 1998.

